



---

# **2013/ aurre-programa**

---

---

---

---

## ARTELEKU/ 2013ko AURRE-PROGRAMA

Jaio zenetik, arte ekoizpenaren eta esperimentazioaren zentroa izan da Arteleku. Aurrerantzean ere, definizio eta premisa programatiko hauek izango dira gure bizkarrezur: gaur egungo kulturaren sorkuntza, ekoizpen eta gogoeta zentroa izatea, eta irekitasunez harrera egitea espresibide berriei, teknologia digital berriei eta multimediatiko eta ikus-entzunezko proiektuen ikerketari eta garapenari.

Definizio horretatik abiatuta, 2013ko programazioan mantendu egin ditugu ardatz kontzeptual: diziplina artekoa, esperimentazioa, interakzioa eta partaidetza. *Praktika artistiko garaikideak* izenpean, berriz, programa osatzen duten ekintza ugariak mantentzen ditugu.

2013ko programa, laborategi, praktika fiministak, Mediateka eta beste proiektu artistiko eta kolektiboen elkarlanaren bitartez garatzen da; hauen arteko erlazio eta interrelazioaren bitartez, praktika artistiko garaikideen ekoizpen eta erreflexioa bultzatzen delarik.

---

---

## **PRAKTIKA ARTISTIKO GARAIKIDEAK**

---

---

- 1. Laborategiak**
  - Arte eta Teknologia**
  - Audiolab**
  - Irudia Mugimenduan**
  - Mugatxoan**
- 2. Feminismoak**
- 3. Grafika tailerrak**
- 4. Praktika fotografikoak**
- 5. Lankidetzak**
- 6. Mediateka**

---

## 1. LABORATEGIAK

### **Artea eta Teknologia Laborategia**

Koordinazioa: **Daniel Artamendi**

Arte eta Teknologia Laborategiak aurkezten duen ekintza egitarauaren oinarrian hainbat lantegi daude, aztergai dituztenak artearen, zientziaren eta teknologiaren artean dauden askotariko elkarguneak. Lantegiek hartzaile hauek dituzte, besteak beste: artistak, diseinatzaileak, programatzaileak, ingeniariak eta arkitektoak.

Arte eta Teknologia Laborategiaren 2013ko ekintza egitarauak jarraipena ematen die aurreko urtean aurrera eramandako lan ildoak –fabrikazio digitala, bideo-jokoaren inguruko eztabaida, eta programazio lengoaien bidezko ikus-entzunezko esperimentazioa–, eta zabaldu egiten ditu ildo horiek, espazioarekin –espazio publiko nahiz arkitektonikoarekin– zerikusi handiagoa duten praktikekin zabaldu ere.

### **Ikusizko (eko)sistemak Processing bidez**

Gonbidatuak: **Aritz Zabaleta, Daniel Artamendi**

Lankidetzak: Donostiako Informatika Fakultatea

### **Martxoa-apirila**

Lantegi honen gaia da hainbat sistema sortzea, gai direnak–informatika, modelatze eta irudikatze tresna gisa erabilia– bizitza-nozioaren gainean eta horren barnean egon daitezkeen (ber)antolamenduen gainean espekulatu, imitatu eta emulatzeko. Parte hartzaile bakoitzak bere eredia sortuko du, eta horren gainean aztertuko ditu egon daitezkeen haren irudikapenak.

Lantegia lau astean egingo da, online, eta lau saiotan, bertaratuta, parte hartzaileek aukera izan dezaten beren zalantzak argitzeko eta egindako lana partekatzeko.

### **Tresnak: Tools{08 – Proiekzio monumentalak (*Bideomapping*-a eta inguru arkitektonikoak)**

Gonbidatuak: **Jaime de los Ríos, Pablo Valbuena**

### **Maiatza**

*Bideomapping* deritzana proiekzio teknologia bat da, zeina erabiltzen baita gainazal irregularrak irudien proiekzioko gainazal bihurtzeko. Teknika hori

erabiliz, artistek dimentsio gehigarriak, irudipen optikoak eta mugimendu irudipenak erants ditzakete objektu estatikoen gainean.

Lantegiak proposatzen du teknika hori sartzea, Artelekuko objektuak eta inguru arkitektonikoa erabilia, elementu horiek eduki litzaketen ikus-entzunezko luzapenei buruz esperimentatzeko eta ikertzeko.

### **Interbentzio hiritarrak teknologiaren eremutik**

Gonbidatuak: **Clara Boj, Diego Díaz**

#### **Ekaina**

Lantegiak gizarte hiperteknologikoaren inpaktua ikertzen du, artefaktuak sortuz edo hirian interbentzioak eginez, ez nahitaez teknologikoak baina bai sinbolikoak, kultura teknologikoaren erabilerari eta kontsumoari buruzko hausnarketa sustatzeko, bai aparatuak, bai ohiturak bai ideiak kontuan hartuta.

Lantegi hau era guztietako artistei irekita dago, nahiz eta sustatzen den hausnarketak izaera teknologikoa eduki; ez da ezinbestekoa egin beharreko interbentzioek formatu edo euskarri tekniko bat dezaten.

### **VIDA sarien aurkezpena**

Gonbidatua: **Mónica Bello**

Lankidetzak: Koldo Mitxelena Kulturunea

#### **Uztaila**

VIDA, arteari eta bizi artifizialari buruzko nazioarteko lehiaketa, 1999an abiarazi zuen Telefónica fundazioak. Sorreraren oinarria izan da, eremu horretan sorkuntza bultzatzeko misioa, artisten lan aitzindaria aitortuz. Arte munduko lehiaketarik ospetsuenetako bat bihurtu da, eta bizitza ikuspuntu horretatik aztertzen diharduen munduko bakarra da.

Mónica Bellok, VIDA lehiaketako arte zuzendariak, lehiaketaren aurkezpen bat egingo du, eta lan saio ireki bat lehiaketan aurkeztu nahi duten artistekin.

### **Fabrikazio digitala, fabrikazio hiritarra**

Gonbidatuak: **Arquimaña, Abelardo-Gil Fournier, Dario Urzai**

Lankidetzak: Kodo Mitxelena Kulturunea, Donostiako Arkitektura Eskola

#### **Iraila**

2012. urtea 3D DIY inprimaketaren leherketa urte bihurtu da. Hala ere, eta teknikaren azken helburua erabilera unibertsala izan arren, oraindik jakituria espezializatuen eremuaren barruan jarraitzen du: gertuago daukate artista, ingeniaria edo zale porrokatua; eta urrun dauzkate herritarrak.

Fabrikazio digitalaren teknologia eta filosofia ezagutarazteko, herritarrei zabaldutako erakusketa/lantegi bat proposatzen da. Saio honetan erakutsiko da ez bakarrik teknologia horren funtzionamendua, baita ere zer-nolako objektuak fabrika daitezkeen, eta zer-nolako ohitura aldaketak ekarriko dizkioten horiek kontsumoari.

Artearen esparruan, proposatzen da, eskulturatik gertu dagoen lantegi bat, non ikertuko den zer-nolako ahalbideak dituen teknikak obra artistikoa sortzeko.

### **Laborategia: bideo-jokoak sortzea, diseinatzea eta prototipoak egitea #2**

Gonbidatuak: **Rubén Alcañiz, Javier Sánchez (@quimicefa)**

#### **Urria**

Lantegi hau laborategi gisa sortzen da, bideo-jokoen kontzeptua eta mekanismoak arakatzeko eta zalantzan jartzeko, hainbat ikuspuntu hartuta: estetikoak, narratiboak, diskurtsiboak, teknikoak, baita jokagarriak ere. Laborategi honetan elkartu egingo dira, batetik, joko mekanismo horien analisi kritikoa –bideo-jokoa testu gisa nahiz jolas ingurune gisa–, bestetik, bideo-jokoen bitartez diskurtsoa sortzeari buruzko ikerketa, eta azkenik, bideo-jokoen sorkuntza ekoizpen independentearen ikuspegi batetik sustatzea.

Lantegiaren formatua Gamejam edo LudumDare motako bideo-jokoen sorkuntzako *sprinten* antzekoa izango da. Lantegiko lehen egunean gai/idea bat proposatuko da, eta lantegia egin bitartean, parte hartzaileek bideo-joko bat asmatu, garatu eta haren prototipoa egingo dute.

## **Audiolab**

Koordinazio: **Xabier Erkizia**

Hamar urteko ibilbidea osatu ondotik, Artelekuko soinuaren eta entzumenaren ikerketari eskainitako laborategiak hasierako xede eta helburuak betetzen jarraitzeko asmoa agertu nahi du 2013rako egitasmo honen bidez.

2003an sortu eta gero ohikoa izan den moduan, Audiolaben ekitaldi eta egitasmo egitarauak musika eta soinu sorkuntzaren alor akademikoetan gutxi aztertutako ezaugarri eta alorretan sakontzeko espazioa izan nahi du, besteak beste inprobisazio askea, musikaren eta entzumenaren esanahi politiko eta sozialen inguruko ikerketa edo soinu paisaiarekiko (eta ondorioz gure gizartearen naturarekiko) harremana sustatuz.

### **PROIEKTU DIGITALAK**

#### **SOINUMAPA.NET: Euskal Herriko Soinuen Mapa**

[www.soinumapa.net](http://www.soinumapa.net)

Koordinazioa: **Xabier Erkizia, Xavier Balderas**

Talde editoriala: **Iñigo Telletxea, Myriam Ayçaguer, Stephane Garin, Mikel R. Nieto, Txesus Garate, Xabier Erkizia, Xavier Balderas.**

Zortzi urteko ibilbidea egin ondotik Euskal Herriko Soinuen Mapa, egitasmo digital eta kolektibo modura, orain arte bizitako momentu gozoenean dago. Online artxibo libre honek dagoeneko lizentzia libreko 1000 soinu-grabaketen muga gainditu du, inoiz Euskal herrian egon den gisa honetako artxibo aberatsenetakoa bihurtuz. Egitasmoan parte hartzen duen komunitateak ere 100 lagunak gainditu ditu, eta etengabe haziz doa.

Halaere, aurrerapausu haundiena artxiboaren erabileran dago zalantzarik gabe. Azken urteotan Soinumapa bai hezkuntza mailan (adin txikienetik hasi eta unibertsitateraino) tresna erabilgarria izan dadin lan egin dugu (eta hala jakinarazi digute zenbait hezkuntza zentruetatik), Euskal Herriko irratietan gero eta gehiago erabiltzen den tresna ere bihurtu da eta bestelako sorkuntzarako (filmetarako musika, musika konposaketa..) ere tresna erabilgarria da. Orohar, maparen bisitari eta erabiltzaile kopurua hazten ari da eta nazioartean duen oihartzuna ere aipagarria da.

2013an 2012ko lan erritmo ederra (2012an 300 erreferentzia baino gehiago gehitu ziren artxibora) mantentzea izango du helburu Soinumapak,

hortarako webgunearen funtzionamendua eguneratuz, atal berriak irekiz eta orain arte egin bezala hezkuntza eta dibulgazio mailan lan egiten jarraituz.

### **HOTS! Soinu Paisai irratia**

[www.hots-radio.info](http://www.hots-radio.info)

Koordinazioa: **Mikel R. Nieto**

Artista gonbidatuak: **Miguel Angel Elizalde, Pablo Sanz, Laurentx Pommier, Myriam Ayçaguer...**

HOTS! izaera monografikoa duen online irratia da. Egitasmo honen helburua soinu paisaien ideia ahal eta zentzu zabalenean lantzen duten izaera desberdineko soinuuzko lan zenbait erakustera ematea da. Podcast modura argitaratzen diren HOTS!eko saioek hain eztabaidatua den kontzeptu honen inguruko hurbilketa eta ikuspegi desberdinak eskaintzen dituzte, hortarako irratia tresna experimental bezala erabiliz.

HOTS! 2008an Audiolab plataformak sortu egitasmoa da, Arteleku arte garaikideko zentruarekin elkarlanean eta Euskal herriko Soinuen mapa den SOINUMAPA.NET proiektuaren magalean. Irrati honek ARTESONORO.ORG sareko podcast bilduman parte hartzen du. Zazpigarren bizi urte honetan eta dagoeneko 40 sorkuntza lan online argitaratu ondotik, irrati honek orain arteko bideari jarraitu nahi dio baina bere funtzionamendua berrituz eta aldatuz. Zentzu hortan, soinu praktika hauek sarearekin duten erlazioa, irrati eta netlabel arteko aldea, edo soinu paisaia errepresentatzeko moduen inguruko hausnarketak plazaratu nahi ditu, podcast euskarria erabiliz. horregatik 2013 honetan, moldaketa nabarmenak izango ditu irratiak, interfacetik hasi eta podcasten maiztasuneraino.

### **AUDIOLAB BLOG ETA WEB SAREAK: Audiolab blog, MRBAMM, Noise & Capitalism**

[www.arteleku.net/audiolab](http://www.arteleku.net/audiolab) [www.arteleku.net/mrbe](http://www.arteleku.net/mrbe)

[www.arteleku.net/noise\\_capitalism](http://www.arteleku.net/noise_capitalism)

#### **Urte osoan zehar**

Blog eta webgune sare honek, aipatu egitasmo digitalekin batera, plataforma-laboretegi honen bizkarrezurra osatzen du.

2005etik egunero berriak argitaratzen dituen AUDIOLAB blog nagusiak, bertatik antolatu egitasmoen berri emateaz gain Euskal herriko musika esperimentalen egunerokotasuna islatzen duen leihoa da. Bloga laboretegi arduraduenk kudeatzen dute eta azken 6 urteotan (denetara 1.900 post



baino gehiago), disko kritikak, ekitaldien jakinarazpenak, iritzi artikulak, deialdiak argitaratzen ditu.

MRB/AMM bloga jatorriz izen bereko euskal musika esperimentalen topagunearentzako komunikazio plataforma bezala jaio bazen ere, gaur egin iritzi espazio ireki bat da, besteak beste eztabaida, elkarrizketa eta bestelako iritziak plazaratzeko lekua. 600 artikulua baino gehiago eta 700 erantzun baino gehiago argitaratu dira orain arte.

2009an ireki zen sare honetan blog gazteena. NOISE & CAPITALISM liburuari eskainitako bloga da, non argitalpen honen haritik sortutako iruzkin, kritika, eztabaida eta ekitaldien berri ematen den.

## **TAILERRAK**

### **Tailer praktiko-teorikoa: INPROBISAZIOA**

Koordinazioa: **Audiolab, Azala espazioa**

Gonbidatuak: **Seijiro Murayama, Itziar Okariz**

#### **Apirilaren 2tik 6ra**

Gero eta jokabide definituagoz eta zuzenduagoz funtzionatzen duen bizitza modu batean, nola inprobisa daiteke? Posible al da inprobisatzea? Edo haren kontrakoek berresten duten modura, garen horrek edo izan behar genukeen horrek hainbeste baldintzatzen du gure pentsamoldea, inprobisazioa askatasun ilusio soil baino ez dela?

Erantzun zaileko galdera hauei irtenbideak topatzeko helburuarekin, are gehiago, aldez aurretik erantzunik ez dutela izango jakinik, Audiolab eta Azala espazioek elkarlanean bilaketa tailer hau proposatzen dugu. Jatorri eta esperientzia desberdinetako bi artista elkarrekin jarri eta inprobisazio egoera bat behartu nahi dugu, automatikoki parte hartzaileengana iragaziko dena. Irakasle eta ikasle jarrera klasikoak zalantzan jarriz, eta elkar ezezagutza esperientzia pizgarri bezala ulertuz, tailer honek, gauza guztien gainetik, topaketa izan nahi du. Bapatekoa, inprobisatua. Halakorik bada.

### **Tailer praktiko-teorikoa: IMPROBISAZIOA**

Koordinazioa: **Oier Etxeberria, Xabier Erkizia**

Artistas gonbidatua: **Diedrich Diederichsen**

#### **Maiatza**

Entzumenaren aktoaren beraren inguruko ikuspegi desberdinak azaldu eta aztertu nahi ditu egitasmo honek. Filosofía, antropologia, soziologia, politika, musika edo kazetaritza bezalako alorretatik egindako ekarpen ugarien bidez, kulturalki jaso ditugun entzumen motak eta modeloak aztertu nahi ditu

Hirugarren belarriak, horrela beste entzuteko moduekin kontrastatu eta hain ezezaguna eta aldiberean hurbilekoa zaigun zentzuen fenomeno honi buruz gehiago jakiteko asmoz.

**Diedrich Diederichsen** (Hanburgo, 1957ko abuztuaren 15a) idazle, musika kazetari and kultur kritikari alemaniarra da. Artea, politika eta pop kultura zeharkatzen dituen pentsamenduaren alorrean, Alemaniako idazle intelektual nabarmenetakoa da. Diedrich Diederichsen Hanburgon jaio eta hazi zen, eta bertan egin zuen lan lehen aldiz musika kazetari gisara, *Sounds* izeneko aldizkarian, hain zuzen 1979tik 1983ra gertatu ziren Punk eta New wave musika mugimenduen leherketen garaian. 1990ko hamarkada arte, Koloniako eragin handiko Spex aldizkarian editore nagusi lanak bete zituen. Behin behineko irakasle lanak ere egin izan ditu eta zenbait urtez Stuttgart-go Merz akademian irakasten ibili ondotik, 2006an Vienako Arte Ederren Akademiako Arte garaikidearen Teoria, Praktika eta Komunikazio irakasle bihurtu zen.

### **Tailer praktikoteorikoak: IRRATI SORKUNTZA**

Koordinazioa: **Myriam Ayçaguer**

#### **Uztaila**

Irratia aipatzen dugunean, denak onartzen dugu definizio komun bat, ahotsa, musika, komunikabidea, konpainia eta beste hainbat ezaugarriekin osatzen dena. Gutxitan pentsatu ohi dugu ordea zer izan zitekeen edo zer izan daitekeen irratiak, ezta ze beste elementu onar ditzaken bere barnean. Irratirako zinema, soinu-dokumentariak, soinuzko postalak, irrati-antzerkia edo soinu-poesia bezalako praktika artistikoak abiapuntu bezala hartuz, tailer honek irratiak sorkuntza modu desberdinetarako eta esperimentaziorako eskaintzen dituen aukeretan eta moduetan sakondu nahi du. Soinu artistentzat, musika sortzaileentzat eta irrati ingurunea sormen tresna gisa sakonki aztertu nahi duen jendearentzat pentsatua dago tailer hau. Parte hartzeko, proiektu proposamenak bidali beharko dira.

### **Tailer teorikoak: DONOSTIA NOISE**

Koordinazioa: **Jose Luis Espejo**

#### **Abuztua**

Entzumenaren hezkuntza sustatu nahi duen tailer hau, soinuen munduan interesa duten guztiei zuzenduta dago, berdina dio ze lanbide eta jatorrikoa

izan: soinu artistak, soziologoak, ingurumenaren inguruko kezkak dituztenak, arkitektoak, ikerlariak... Irakurketa talde formatua hartuz, tailerraren ideia nagusia, gaian erreferente diren idatzi batzuen bidez (Murray Schaffer, Blesser & Salter, Bijsterveld...), Donostia eta berak sortzen edo bizi duen zaratari buruz hausnartzea du helburu tailerrak. Hortarako, hizketaldiak ezik, ibilaldiak, grabaketa saioak edo zine emanaldiak proposatuko dira, hiriaren soinuazko identitatearen inguruan ikuspegi desberdinak landu alde. Azken finean, soinu paisaiari buruz pentsamolde kritikoa sustatzeko aukera bat proposatzen du tailer honek.

### **Tailer teorikoa: HIRUGARREN BELARRIA: Boooooom!**

Koordinazioa: **Oier Etxeberria, Xabier Erkizia**

Gonbidatuak: **Nazioarteko adituak**

#### **Iraila**

Progresiboki soinuak irakurtzeko, soinuen lerro artean irakurtzeko gaitasuna galtzen edo gutxienez kamusten ari garen momentuan, Hirugarren Belarria ikerketa egitasmoak, entzumenaren izaera eta baldintza sozial, politiko eta kulturaletan sakontzeko helburuarekin, gure soinu ingurunearen azterketa eta eztabaida publikoak sortzeko beharra adierazi nahi du. Entzuten dugunak gizaki sozial gisa egiten, eraikitzen gaituela sinetsita, gure eguneroko soinu paisaiak eratzen dituzten zarata, ahots eta musikek guri buruz, guk beraiei buruz baino gehiago dakitela erakusten digute.

Hirugarren belarriaren edizio berri honek GERRAREN SOINUA hartuko du gai nagusi bezala. Helburu hauekin, Hirugarren belarriak gaian adituak diren nazioarteko nahiz bertako pentsalari, idazle edo artistak gonbidatu nahi ditu, zarataren historia ezezagun hori aztertu eta hauen irakurketa desberdinak sozializatzeko.

### **BESTE EKITALDIAK**

#### **IRRATIAREN BARRENAK ENTZUTEN**

Antolakuntza: **EHU/UPV**

Gonbidatuak: **Arantxa iturbe, Tere Beloki, Xabier Erkizia**

#### **Martxoak 7 eta 14**

Azken 30 urteotan soinuarekin lan egiteko teknikak eta (ondorioz) estetikak nabarmen aurrera egin duten arren, oinarrian, irratiak orain dela 30 urteko baliabide beretsuak erabiltzen ditu oraindik. Beharbada, gure herri hontan komunikabideekiko ditugun errezeloek behartuta, (dela klase politikoaren eskuhartzea, direla hizkuntza ttikiaren konplexuak eragindako beldurrak edo

kultura sonoroa ahaztea, dela irrati-arteak jorrazteko ezintasuna...) irratia, bereziki euskaraz egiten denak, jarrera nagia hartu du, esperimentatu ezkerreko audientzia galtzeko beldurrez. Lehenetsun kontua ere izan daiteke, euskal kulturaren orokorrean zer gertatu den ikusten badugu: hizkuntzaren defentsa eta bizi-iraupena izan ditu irratia ere lehenetsun. Horrexegatik, euskaraz aritzeak dituen berezitasunak eta eskaintzen dituen aukerak ezagutzea (audientziak kopuru mugak ditu, baina txikia beti da malguago) inoiz baino garrantzitsuagoa da, etorkizuneko erronkei erantzuteko gai izango den euskarazko irrati eguneratu eta aurrerakoi bat proposatzeko. Bi egunetan banatutako lantegi honek irratigintzarekiko ikuspegi berriak sustatzea du helburu nagusi. Aurrera egin nahi bada, gaur egun irratia egiteko moduei erreparatu, ikuspegi kritikoa eta eraikitzailea topatzea beharrezkoa da.

### **Hitzaldi-kontzertu-aurkezpenak: ]IREKIAK[**

Gonbidatuak: **Inazio Escudero, Miguel A. García, Luis Costa, Manuela Barile, Jana Jan...**

Proiektu eta lanen aurkezpen saio erregularrak. Urte osoan zehar. Berdin dio kontzertu, entzunaldi, hitzaldi, mahai-inguru edo mikro-tailer izan. Helburua topaketa leku jarrai bat sortzea da, zalantzak, ideiak eta laguntzak modu informal baina aberatsean partekatu daitezken lekua.

### **ERTZ Beste Musiken 12. Festibala**

Koordinazioa: **ERTZ Elkarte**

**[www.ertza.net](http://www.ertza.net)**

#### **Irailak 7-14**

Zazpigarren urtez jarraian, azken 13 urteotan Nafarroako Bera herrian ospatzen den ERTZ jaialdiak, bere egitarauaren zati nagusi bat Artelekun ospatu nahi du. Urte guzti hauetan ERTZ Euskal herri mailan erreferente bat bihurtu da musika esperimental eta ezohikoei dagokionez, baina baita estatu mailan eta atzerrian ere. Festibalean parte hartuko duten hainbat artistek beraien lanak aurkeztuko dituzte Artelekun, bideo emanaldi, kontzertu, hitzaldi eta instalazioen bidez, jaialdiaren joanetori biziari lasaitasun aire bat emanez. Elkarlan honek nazioarteko artistak Artelekura hurbiltzeko aukera paregabea suposatzen du, gastuak eta esfortzuak elkarbanatuz emaitza ezinhobeak lortu daitezkeela argi geratu baita azken urteotan.

## **ARGITALPENAK**

### **JOSE LUIS ISASA: Atzera begirakoa**

Koordinazioa: **Fernando Golvano, Xabier Erkizia**

Jose Luis Isasa (Donostia, 1940) konposatzailearen lana, 60-70ko aboangardiako erreferentzia ahaztu baina garrantzitsu horietakoa da. Hamarkada haietan, Isasa aitzindaria izan zen bai ezohiko musiken sorkuntzan baita ekitaldi, jaialdi eta sorkuntza espazioak sortzen ere (berak sortu zuen estatu mailan ezagutu zen lehen musika elektronikoaren Laborategia). Besteak beste Iru-eako 72ko topaketetan parte hartu zuen eta John Cage zenarekin ere emanaldiak egin izan zituen handik landa. Halaere eta arrazoi ulergaitzen ondorioz, bere konposizio lanak ez du behin ere jaso behar bezalako zabalpen ez oihartzunik, eta ez bereziki kalitate faltarengatik. Lau hamarkadaren ondotik, bere konposizio argitaratugabe hauek oraindik indartsu eta berritzaileak dira, zinta magnetiko delikatueta gordeak izan badira ere. *Ageri* edo *Ageri II* bezalako konposizioek oraindik garaikideak dirudite eta egindako momentuaren freskotasun eta ausardia guztia gordetzen dute.

Lan honen balioa benetan kontutan hartzekoa dela sinetsita, lan hauek lehen aldiz CD euskarrian argitaratzeko saiakera egitea ezinbestekoa dela iritzi diogu. 2010ean Isasa berarekin harremanetan hasi ginen, lehen pausuak emanez, baina Artelekuko zuzendaritza desagertu ondotik, egitasmoa zintzilik geratu da. Lan ildo hau berreskuratu eta behingoz musika ondare garrantzitsu hau argitara ateratzeko garaia da, bereziki autoreak (dagoeneko adindua) bizirik jarraitzen duen bitartean.

Aurreikusitako aurrekontuak soilik CDaren ekoizpena hartzen du kontutan, gastu horren kargu egiteko modua izanik, gainerako ekoizpen gastuetarako diru iturri berriak topatzeko asmoarekin.

## **Irudia Mugimenduan Laborategia**

Koordinazioa: **Isabel Herguera**

Mugimenduzko irudien laborategia animazio esperimentalaren garatzeko eta ekoizteko gunea da. 2013an egingo diren tailer eta hitzaldietan, beraz, oinarrian zinema nahiz arte plastikoak dituen ikus-entzunezko diziplina bat emango da ezagutzera. Mugimenduzko irudien laborategiaren helburua da, alde batetik, animazioaren teknika jartzea artistaren eskura eta, bestalderetik, haren sormena sustatzea lan sareak ezarrita eta beste diziplina artistiko batzuetatik datozen autore eta kolektiboekin harremanetan jarrita.

### **Isiltasunari buruz**

Zuzendaritza: **Menchu Gutiérrez**

#### **Ekainaren 4tik 7ra**

Mintegi honek askotariko diziplinen eta lengoaien arteko elkarrizketa bat proposatzen du isiltasunaren kontzeptuari buruz. Tapiz poetikoen sail baten modura pentsatua dago, aztergai hauek dituela: elurraren, gauaren edo basamortuaren isiltasuna, literaturan, pinturan edo musikan; zinema mutua eta soinudun zinema; zarata eta beldurra; sekretuaren isiltasuna eta beste isiltasun sinboliko batzuk.

**Menchu Gutiérrez**, nobelagilea, itzultzailea eta poeta da. Haren obra poetiko zabalaren artean, azpimarratzekoak dira *El ojo de Newton*, *La mano muerta cuenta el dinero de la vida* edo *La mordedura blanca* (Ricardo Molina poesia saria, 1989) eta *San Juan de la Cruz* saiakera biografikoa. Siruela argitaletxeak bilduma liburu bat kaleratu zuen 2011. urtean, egileak argitaletxe horretan argitaratu zituen lehen hiru nobelak hartzen zituenen, *La niebla*, *tres veces* izenekoak, egilearen aitzinsolas batekin; baita ere, beste liburu bat, non beraren *Basenji* nobela berreskuratzen zuen, egileak berrikusia, eta *El faro por dentro* izeneko testu berri bat, liburuari izena ematen ziona.

### **Hondoko Itsasoa III. Animazio ekoizpena sarean**

Irakaslea: **Koldo Almandoz**

#### **Ekainaren 17tik 21era**

Sareko ekoizpen-lantegi honen helburua da animazio segmentu bat ekoiztea elkarlanean estatuko eta nazioarteko hainbat erakunderekin, eta aldi berean gauzatuko da han-hemengo zentroetan, aste batean zehar. Hona hemen, parte hartzen duten zentroak: Arteleku, Donostia; CAFA - Txina Central Academy of Fine Arts, Pekin, Txina; Universidad Javeriana, Bogotá, Kolonbia; \_Escola Massana, Bartzelona, Espainia; USC, University of Southern California, Cinematic Arts, AEB.

Lantegi hau 2011n abiatutako sareko lan baten parte da. Aurreko edizioetan bi animazio-segmentu ekoitzi dira, lan metodo gisa "hilotz bikaina" joko dadaista erabiliz. Norberaren marrazkiak nahiz besterenak animatzean datza, irudi horiek berrinterpretatuz eta manipulaturik, helburua izanik ikusizko ehun bat eraikitzea, narrazio bat, elkarren arteko esperientzia batetik abiatuta.

**Koldo Almandoz**, zinema zuzendaria, gidoian eta edizioan prestakuntza sendoa duena. Koldok batera egiten ditu zinema zuzendaritza eta beste ekintza batzuk, hala nola arte, kultura eta gizarte antropologiako *The Balde* aldizkaria zuzentzea. Haren film laburrak estatuko nahiz nazioarteko ehunka jaialditan proiektatu dira, eta makina bat sari irabazi dute.

#### **Eskuz egindako zinema: beste espazioak**

Irakaslea: **Naomi Uman**

#### **Uztailaren 8tik 22ra**

Lantegi honetan lan dokumental bat burutuko da Artelekuren albo banatara dauden bi instituzioen inguruan –espetxea eta komentua–: baztertze lekuak, gizarte kode moral nagusien bidez gobernatzen ez direnak. Lantegian hainbat teknikarekin lan egingo da: 16 mm-ko pelikula, marrazkia, argazkia, bideoa...

**Naomi Uman**, zinema esperimentaleko zuzendari iparramerikarra da, entzute aitortua duena, eta nabigatzen duena egunkari etnografikoaren eta esperimentazioaren arteko uretan. Azkeneko lau urteak Ukrainan eman ditu

Naomi Umanek, hara emigratu baitzuten bere arbasoek orain dela ehun urte baino gehiago. Esperientzia hori jasota geratu da film sail batean, non lausotu egiten diren begirada pertsonalaren eta antropologikoaren arteko mugak.

### **Sare sozialak eta ekoizpen/finantzaketa prozesuak animazioan.**

Irakaslea: **Cokee Rioboo** y **Lourdes Villagómez**

#### **Uztailaren 22a eta 23a**

Lantegi hau bi saiotan banatuta dago. Lehenengoa praktikoa da, eta Coke Riobook, film laburraren zuzendariak, azalpenak emango ditu, film laburraren ekoizpen fase desberdinen sorkuntza prozesuaz, zuzendaritzaz eta garapenez; eta zer teknika erabili duen erakutsiko du.

Bigarren saioa, berriz, teorikoa da, eta hor, Lourdes Villagómezek aztertuko du zer-nolako komunikazio egitura –sare sozialak– garatu duen *El Ruido del Mundo* ekoizteko, eta, bereziki, finantzaketa kolektiboaren kanpainan.

**Cokee Riobo.** Musikaria eta animatzailea. Animazio film labur onenaren Goya saria irabazi zuen 2007an *El viaje de Said* filmagatik. Plastilinako Animazio irakaslea da Madrilgo ECAM eskolan (Zinematografia eta Ikus-entzunezkoak). *El ruido del mundo* izeneko bere azken lanean, animazio teknika berri bat garatu du, pinturaren eta modelatuaren artean dagoena.

**Lourdes Villagómez.** Los Animantes izeneko kolektiboa sortu zuen 1999an. Animazioa ekoizteko eta sustatzeko kolektibo bat da, Francis Alÿs eta Carlos Carrera artisten lana ekoizten duena, baita hainbat instituzioren ere, honako hauena, esaterako: Reina Sofia museoa, Matadero Madrid edo MoviStar, besteak beste.

### **Live Performace Open Class**

Irakaslea: **Raimo Benedetti**

#### **Uztailaren 29tik abuztuaren 2ra**

### **Trakitana Collage**

#### **Uztailaren 30a eta 31**

*Trakitana Collage* multimedia instalazio bat eta lan tresna bat da, nahasten dituen teknologia analogikoak eta digitala. Trakitana deritzana da grabazio



eta postproduzio sistema mugagabe bat, denbora errealean erabiltzen dena, eta balio duena esploratzeko zenbat eta zenbat sorkuntza aukera ager daitezkeen abiapuntu hartuta arte diziplina desberdinen bereizkuntzarik gabeko erabilera, hala nola hauena: dantza, pintura, musika eta argazkia. Bi lantegi emango dira trakitana erabiliz joko tresna gisa: bata helduentzat, eta bestea, berriz, haurrentzat. Lantegia egin bitartean, parte hartzaileek ikus-entzunezko lan bat ekoizteko aukera izango dute.

## **“Atrakzioen zinema”:** aurkezpena eta proiektzioa

### **Abuztuaren 1a**

**ATRAKZIOEN ZINEMA.** Saio honetan, zinemaren hasieran (1895etik 1905era) zuzendutako hainbat film proiektatuko dira, balioko dutenak gaur egungo ikus-entzunezko ekoizpenean zer-nolako jarraipena izan duten aztertzeko eta erakusteko; batez ere, interneterako egindako lan esperimentaletan eta arte plastikoen zirkuitua edo merkatua osatzen duten horietan izan duten jarraipena.

**Raimo Benedetti** brasildar bideo-artista bat da, 1990az geroztik zinema irakasle, ekoizle eta muntatzaile lana egiten duena. Sari ugari irabazi ditu, hala nola Itaú Cultural institutuaren *Rumos Danza* 2009an eta *Rumos Audiovisual* 2010ean, eta *Sergio Motta* sarirako izendatua izan da. Sarri askotan lan egiten du *O2 Filmes* ekoiztetxearekin, lankide duela Fernando Meirelles, Rio de Janeiroko 2016ko Olinpiar Jokoetako kanpainaren zuzendaria.

## **Mugatxoan**

Koordinazioa: **Blanca Calvo, Ion Munduate**

Mugatxoan proiektuak objektu immaterialaren eta ikuslearen arteko harremanetan oinarritzen du bere jarduna, eta gailu horiek performancearen eta horren aldagaien alorrean ekoizten dituzte. Proiektu koreografiko bat da Mugatxoan. Koreografikoa, zeren eta espazio eta denborako harremanak baitaude proiektuaren inguruan mugitzen diren, proiektuan sartzen eta proiektutik irteten diren, ta proiektuan barrena dabiltzaneren artean: egoteko eta izateko modu bat da. Mugatxoan proiektuak proposatzen duen espazio-denbora horri esker, beharrezko zaigun ekosistema bat osatzen da, elkarrizketa irekitik eta elkarren arteko ikerketatik abiatuta. Ahal dugu geratu eta arnasa baretu, eta, hala, lan partekatuak akuilatuta, lanean, gogoetan, galderetan eta kezketan murgildu. Beraz, Mugatxoan da leku bat non praktika bera teoria bilakatzen den jakintza ekoizteko, beste ekoizpen modu batzuk aztertu eta bilatzeko.

## **Gorputza Desagertzen Denean**

Nola egon, egon gabe? Nola segi egoera, orainaldia, sortzen? Soinua materiaz gabetzeko bitarteko gisa. Zer antzematen zaio performance bati, baldin eta ez badugu ikusten?, entzun besterik ez badugu egiten? Nola antzeman dezakegu performancea non gauzatzen den eta zer irudi sortzen duen? Nola desagertzen da gorputza? Hitza gorputza ote? Maitasuna hautematea zeinu bezala. Hizkuntza zein unera arte da errealaren iradokizun bat, beste ezer baino gehiago? Hizkuntza bilakatu ote dezakegu bere hitzarekin oraindik topo egin ez duen zerbaiten zeinu?

Galdera horiei eta beste batzuei nola erantzun aztertzen ari ginela, irrati programen formatua iruditu zitzaigun irtenbiderik egokiena. Izan ere, irratiak gai da praktikaren eta jakintza partekatuko prozesuen bidez edukiak sortzeko eta, batez ere, orainaldia edo beste orainaldi bat sortzeko.

Irratiak iradokitzen du, edo, behintzat, ametsarazten du, norbait dagoela mikrofonoaren beste aldean. Bultzatzen gaitu espaziosko eta denborazko jarraitasun bat zertzer esataria zuzentzen zaion pertsonarekin. Manuel Cirauqui-k ezin hobeto adierazten du hori: "Hemengo eta oraingoa suspertzea, paradoxa bat gu harremanetan jartzeko ikusten ez dugun norbaitekin, beti hor dagoen eta, beraz, beharbadako biztanle den norbaitekin".

Esperimentazioa honetan, irratia ez da bitarteko bat, ez da laborategi bat, baizik eta leku bat non "atseden hartzen den" eta non performancea oinarritzen den. Horrela, zeinuak, formatu ezberdin horretara itzuli eta egokitzean, bere balioa aurkitzen du. Uste dugu ezen, gertatzen dena eta gehienetan begiradaren bidez antzematen duguna lerratzen badugu sortu den soinuaren bidez bakarrik antzematen dugunera, galdera interesgarriak sortuko lirakeela performancearen mozioei buruz. Esperientzia horrek sustatzen ditu performance alorrean objektu immaterialaren eta ikuslearen artean sortzen diren harremanak, batetik, eta aurrez aurre ez dauden elementu horietako batzuek modu diskurtsiboagoen mesedeko garapena, bestetik.

2011 geroztik lantzen ari garen "Gorputza desagertzen denean" proiektuaren hirugarren eta azken fasearekin jarraitzen dugu; izan ere, bi lan ildo hauek ditu: auto-gogoetazaletasuna eta soinua desmaterializatzeko baliabide gisa, "performance" nozioei buruzko galderak egiteko.

Orain arte bi irratia programa egin ditugu, erakusketa areto batean eta irratia libre batean aldi berean egiten diren performance, hitzaldi, elkarrizketa eta solasaldiez osatuak.

O emisioa. Gorputza desagertzen denean. 2012ko otsailaren 24,25 eta 26an, Donostiako San Telmo Museoan.

1. emisioa. Gorputzik gabeko ahotsa, maitasunerantz. 2012ko urriaren 4,5 eta 6an, Donostiako San Telmo Museoan.

2013. urterako programa berri bat proposatzen dugu: 2. emisioa. Izan / Itzulpena. Hainbat alderdi aztertu ondoren, hala nola, beste toki batekoa izatea, partzialki desagertzea, eta gorputzik gabeko ahots batekin harremanetan jartzea, itzuli egin da lehengo ideia, hau da, performer-aren gorputza ideien, zeinuen, emozioen eta zentzuaren partituren itzultzaile izatea. Ion Munduatek emango duen tailer batekin osatuko da programa hori.

Irekitako ildo editorialarekin jarraituz, hirugarren zenbakiari ekingo diogu: 2. Koaderno. Izan/Itzulpena. Produkzio fasean dago eta laguntzaile berriak izango ditugu, besteak beste, Marten Spangberg (Stockholm), y Virginie Bobin (Paris).

---

---

## 2. FEMINISMOAK

### **Arte ekoizpen feministak: ezagutza prozesuak, bisualiteak eta ibilbideak.**

Koordinazioa: **Maidor Zilbeti**

Gonbidatuak: **Maria Ptqk, Maria José Belbel, Erreakzioa [Azucena Vieites, Estibalitz Sádaba]...**

Arte ekoizpe feministak ezagutza prozesua moduan ulertzen diren heinean interesatzen zaizkigu. Eta honako ezagutza prozesu hauetan murgiltzeko ariketa, artista ezberdinen lanen azterketarekin eta hauek batera jartzearekin aurrera eramango da.

Arte feministaren izendapena eta praktika garai eta testuinguru konkretu bati erantzuten dio eta feminismoetatik lan egiten duten artista guztiak ez dira honako izendapenarekin identifikatzen. Egun, arte ekoizpen feministan, feminismoen lan tresna ezberdinak barneratzen dira: bai aldarrikapen queer, trans eta feministak, bai teoria kritiko queer eta feministak, bai arte feminista eskainitako bisualitate berritzaileak. Honako tresna hauek artista ezberdinen prozesu lanetan nola barneratzen eta islatzen diren ezagutzea interesgarria da. Izan ere ezagutza berritzaileak eta ez legitimatuak posible egiten dituzten tresna feministak identifikatzea garrantzitsua da, honako hauek gure errealitatearen egiturak moldatzen lagunduko digutelako.

Honako hau da proposatzen dugun ibilbidearen helburua, zeinaren bitartez, arte feministaren ekoizpenaren bitartez, artista belaunaldi ezberdinen arteko zein belaunaldi bereko artisten erlazioetan ere pausatu nahi dugun. Jardunaldi hauetan proposatzen diren ibilbideak zeharkatu behar ditugu ezagutza sortzeko beharrezkoa dugun elkarekintza gerta dadin eta gure errealitatera modu berritzailean gerturatu ahal izateko, erlazio eta interakzio bisual berriak posibleak egin ahal izateko.

---

### **3. GRAFIKA-TAILERRAK**

## **Litografia tailerra**

### **Esperientzia Litografikoak**

Koordinazioa: **Don Herbert**

**Uztailaren 1etik 31ra**

Artelekuk, bere existentziaren urteetan, urtero-urtero antolatu izan ditu artistentzako hainbat tailer. Tailer hau teknika litografikoen sarrera gisako bat da, bertan artistak estanzazio prozesua egiten du hasieratik: papera prestatzea, estudioa garbitu eta muntatzea, matrizearen tratamendu kimikoa, eta estanzazioa, Don Herbert maisu estanzatzailearen zuzendaritza eta ikuskatzearen pean.

### **Esperientzia litografikoak poliesterezko xaflarekin**

Koordinazioa: **Iñaki Rifaterra**

**Apirila**

Lantegiko jarduera da irudien erreproduzio litografikoa, trokel gisa poliesterezko xafla erabilita. Lantegiak sakonki aztertuko ditu material horrek eskaintzen dizkigun aukerak, bai argazki irudien tratamendurako, bai irudigintza tradizionalago baterako –baina elementu berriekin–, bai trokel mota maneigarriago honek eskaintzen dizkigun aukera berriak ustiatzeko ere. Modalitate berri honen ezaugarri nagusia da prozesu garbiagoak ahalbidetzen dituela estanzaziorako, erabilitako materialei dagokienez, eta bide berri bat irekitzen du sorkuntza grafikorako, beste urrats bat eginez lengoaia artistikoen bilaketan.

## **Serigrafia Lantegia**

Koordinazioa: **Nerea López**

Serigrafia inprimaketa grafikoko sistema bat da eta euskarri nahiz modu ezberdin ugaritan irudiak erreproduzitzeko aukera eskaintzen du. Erabilera askoko aplikazioak dituen oso tresna baliagarria bihurtu da produkzio artistikoan. Serigrafiako tailerra urte osoan zehar, teknika hau erabiliz edozein forma artistikoko ideiak garatuz sortutako arte proiektuak gauzatzeko baliabideak izango dira eskuragarri, tailerraren arduradunaren aholkuraritza eta laguntza ere izanik.

### **Hastapen tailerra**

#### **Uztailaren 22tik 26ra**

Lantegi honetako partaideek aukera izango dute teknika honen gainean dakitena sakontzeko eta esperimentatzeko, dauzkaten proiektu artistikoak, hauen forma artistikoa dena dela, eta erabat edo zati batez, serigrafiaren bidez gauzatzera begira.

### **Esperimentazio eta Proiektuen Gauzatze Ikastaroa**

#### **Irailaren 2tik 27ra**

Lantegi honetan parte hartzen dutenek aukera izango dute serigrafia teknikaren jakintzan sakontzeko, baita esperimentazioaren bidez, serigrafia erabiliz edozein forma artistikoko ideiak garatuz sortutako arte proiektuak egin ahal izateko bideak bilatzeko ere.

Lantegia bi fasetan banatuko da eta lehenengoa Nerea Lopezek zuzenduko du serigrafiaren funtzionamendua eta oinarrizko prozedurak ezagutzera emanaz. Bigarren fasean proposatutako proiektuak garatu eta gauzatzeko bideak bilatuko dituzte, horretarako Artelekuk dituen azpiegiturak erabili ahal izango dituzte eta Nerea Lopezek aholkularitza teknikoak izango dute.

---

## 4. ARGAZKI JARDUERAK

### **Argazki laborategia**

Koordinatzailea: **Naroa Pérez Iguaran**

Proiektu artistikoak lantzeko diziplinetako bat da argazkigintza. Aurten, argazki laborategia dinamizatzen jarraituko du Artelekuk, Naroa Perez Iguaranek koordinatuko dituen tailerren bidez.

### ***Irudi batek gordetzen duena***

Koordinazioa: **David Jiménez**

#### **Ekaina**

*Irudia, pentsamendua eta zentzua.*

Errealitatea pentsamenduaren isla gisa, edo zergatik diren gauzak pentsatzen ditugun bezalakoak, eta ez alderantziz.

Irudiaren ahala emozioak eta ideiak adierazteko: zerbait erraza da, baina mirari bat dirudi.

Bidaia bat irudi batek gordetzen dituen zentzuzko eta konplexutasunezko geruza askotarikoetan barrena.

*Sortze prozesua.*

Lan fotografiko pertsonalaren garapen prozesua. Nola gorpuzten den ideia bat. Zein material diren gure elikagaiak, eta nola itzultzen dugun gure mundu ikuskera lan fotografiko batera. Bi ekitaldiko prozesu bat: entzutea eta irudikatzea.

*Diskurtsoa eraikitzea.*

Irudia, mundu ikuskera pertsonal bat lantzeko eta presente egiteko baliabidea. Ikuspuntua, espazioa, denbora eta argia: irudikapenaren aldaerak eta esanahia eraikitzerakoan duten eginkizuna. Hainbat sortzaileren lanean nola adierazten diren aztertuko dugu.

**David Jiménez.** Alcalá de Guadaira (Sevilla), 1970. Arte Ederretan lizentziatua, Madrilgo Complutense Unibertsitatean. Argazkigintzako proiektu pertsonalak garatzen dituela badira 20 urte baino gehiago. Lan horiek, liburu, erakusketa eta ikus-entzunezko proiektio modura, Espainiako hiri ugarritan ikusi ahal izan dira, baita Rotterdamen, Varsovian, Arlesen, Turinen, Atenasen, Seulen eta Bogotan, besteak beste. Haren

ibilduean, azpimarratzekoak dira argazkilari errebelazioaren saria PHotoEspaña 99 jaialdian, Villa de Madrid 2008ko arteen saria, eta bost liburu monografikoren argitarapena; besteak beste, *Infinito* izenekoak, eta monografia antologikoa, Photobolsillo bilduman. Haren obra Espainiako bilduma publiko eta pribatu ugarian aurki daiteke. Lantegiak eta hitzaldiak eman ohi ditu argazkigintzako sortze prozesuari buruz.

## **Argazkilaritza Tailerra**

Zuzendaritza: **Xabier Rivas**

### **Urria**

**Xavier Ribas.** Argazkilaria, Brightoneko Unibetsitatean eta Balenziako Unibertsitatean argazkilaritzako irakaslea. Bartzelonako Unibertsitatean antropologia sozialean (1990) eta Inghaterrako Newport School of Art, Media and Design-en argazkilaritza dokumentalean formatua (1993). Bere lana hainbat museoetako eta europear zentroko kolekzioen parte da, hala nola, Amsterdamgo Stedelijk Museum, Fotocollectie Universiteit Leiden, Bartzelonako MACBA, Sevillako CAAC edo Leongo MUSAC. Leica PHotoEspaña saria jaso du(1998) eta hainbat erakundeentzat enkargu argazkiak egin ditu, adibidez Centre National des Arts Plastiques, International Photography Research Network Fellowship, Nafarroako Unibertsitatako Fondo Fotografikoa, Tolosako Unibertsitatea, edo Telefónica Fundazioa. Brighton-en bizi eta Bartzelonan lan egiten du.



---

## 5. ELKARLANAK

### **Marginalia**

Koordinazioa: **Aimar Arriola**

**Martxoaren 11tik 16ra**

“Marginalia” proiektua duela urtebete jarri zen abian, “Pepe Espaliú Liburutegiaren suspertze kritikoaren laborategi” gisa. Denbora hau igaro ondoren, prozesua deskribatu beharko litzateke oroimen, afektu, dokumentu, irudikapen eta jakintzen zirkulazioaren esparru batera hurbiltzeko saio gisa, aldi berean bilera- eta gatazka-gunetzat hartzen dugun leku batean: liburutegia. Foucault jarraiki, liburutegia ez dagokio forma mitikoen errepertorioari, “artxiboari” baizik. Gure kasuan, gainera, liburutegi hori asko dira: Pepe Espaliú eta Arteleku izen bereziek adierazten dutena; artista batek bere bizitzan barrena bildu zituen eta, hein batean, irakurri zituen lau mila eta koska liburuk osatutakoa; garai batean bilduma pertsonala izan zena eta gero, HIESaren inskripziopean, ondare bilakatu zena; arkitektura eta diseinuaren diziplinen azpian, leku bat baino gehiago altzaria dena; batzuek “komunitate” izendatu zituzten eta pixkanaka alde egin zuten beste artista batzuek bi hamarkadez kontsultatu dutena; barne hartzen duen esparru instituzionalak izan dituen aldaketen lekuko mutua izan dena, bere materialtasunarekin aldaketa horiei aurre egiten dena; azken batean, hamaika esperientziaren aztarna eta, aldi berean, promesa dena.

Urtebetez, “hurbiltzeko saio” hori irakurketa, ohar, bilera, truke eta dokumentazio prozesuen inguruan garatu da (neurri batean, online kontsultako gune honetan bildutakoak: <http://lab-marginalia.tumblr.com/>), eta, azkenean, hauxe izan du emaitza: hemen aurkezten ditugun arte eta artxiboko lau ekoizpen –Jeletonek, Antonio Gaglianok, Pablo Martek eta Susana Talayerok (elkarlanean) eta Equipo rek egindakoak–, eta Pepe Espaliúren azken praktikari buruz (1955-1993) abian dagoen ikerketa bat, irizpide kritikoen aldaketa sail baten zantzu eta kondentsazio gisa ulertuta, zeinen emaitzak proiektuaren bigarren ikustarazte-fasean ezagutaraziko diren.

“Marginalia” proiektuak “marjina” guztiek duten alderdi politikoa eta operatiboa aldarrikatu nahi izan du; hala, bada, hemen bildutako arte eta

artxiboko lau proposamenek "liburutegia" bere zenbait muga eta aukeratatik jorratu dute: kultura-tresnen sarbidean eta esanahian ezarritako arauetarako buruzko galderak proiektatzeko testuinguru gisa (Jeletón); bere hondakin materialez baliatuz jakintzaren zirkulazio librerako gailu esperimental bat abiarazteko (Antonio Gagliano); irudiaren eta muntaketaren indar dialektikoaren bidez, kultura eta zibilizazioaren ikur gisa duen izaeraz galdezka, eta "desberdintasuna" barne hartzen duen gorputz espektral gisa (Pablo Marte eta Susana Talayero); eta esparru modura, egoera neoliberean HIESari dagozkion politiken ikuspegitik artxiboaren ez-egonkortasunari buruzko hausnarketa bati ekiteko (Equipo re).

Egoera kutsakorra eta agentzia anizkuna sorrarazteko asmoz, orain, batera aurkezten ditugu lau ekoizpen horiek, aurkezpenak eta eztabaida egiteko jardunaldi batean egituratuta; ildo horretan, lan-prozesuei lotutako materialen espazializazioa barne hartzen du, Artelekuko lehen solairuko hainbat tokitan, eta kanpoko beste hainbat ahotsen "interpelazioa" ere, lortutakoak pizten duen ilusioaren eta ezin eskura daitekeenak sortzen duen zorabioaren artean kulunka."

Aimar Arriola

## **ARTELEKUKO JARDUERAK**

### **Jeletón: Paris is Burning oharduna**

Zuzendaritza: **Jeletón [Jesús Arpal Moya, María Angeles Alcantara]**

### **Martxoaren 11tik 15era**

"Pepe Espaliúren liburutegia dugu Artelekun. Liburutegia dugu (horretaz geratzen dena), auzipean; Pepe Espaliú dugu (horretaz geratzen dena), auzipean; Arteleku dugu (horretaz geratzen dena), auzipean. Gutako batzuei gonbit egin digute hori berrabiatzeko, desaktibatua izan den hori. Ez dugu ezer egingo liburutegiaz, Pepez edo Artelekuz. Ez dugu liburutegiaz, Pepez edo Artelekuz hitz egingo. Proposamena egiten dizugu erakusketa batean biltzeko, eta denok batera argitalpen bat egiteko, beste kontu batez eta honetaz ere jardungo duen argitalpen bat".

## **Marginalia Ekoizpenen Aurkezpena**

### **Martxoak 16**

Parte-hartzaileak: **María Ángeles Alcántara Sánchez, Jesús Arpal Moya, Aimar Arriola, Tamara Díaz Bringas, Santiago Eraso, Dora García (ez prezenziala), Nancy Garín, Antonio Gagliano, Nicolas Malevé, Pablo Marte, Julia Morandeira, Susana Talayero eta Linda Valdés.**

Jardunaldi honetan, *Marginalia* proiektuaren lehenengo emaitzak azalduko dira, proiektua eratzen duten arte eta artxiboko lau ekoizpenen aurkezpenarekin, elkarrizketa abiaraziko duten kanpoko ahotsen "interpelazioarekin" eta lan-prozesuei lotutako materialen espazializazioarekin, Artelekuko lehen solairuko hainbat lekutan.

## **How To Dissapear Completely**

Koordinazioa: **Antonio Macarro, Maialen AC, Pedro Canicoba.**

Gonbidatuak: **Nathalia Acevedo, Andrés Gertrudix, Raya Martin.**

### **Apririla**

Zinema proiektu honek zinema koadernoen sail bat dauka abiapuntutzat, hainbat zuzendarik egin, hala nola Costa-Gavrasede, Raya Martinek, Rikrit Tiravanijak, Mia Hanssen-Lovek, Carlos Reygadasek edo Olivier Assayasek, besteak beste; MANY OF THEM argitalpen proiektuaren hirugarren liburukirako egin ere. Argitalpen horretako bigarren eta hirugarren liburukien artean, hainbat eztabaida sortu ziren zenbait gairen inguruan, hala nola: ikus-entzunezko lengoia eraikitzeke halako modu bat, itxuraz zaharkituta dauden egitura batzuen existentzia, egungo zinema lengoia eta sistemak planteatzen dituzten arazoak, eta, batez ere, irudia pentsatzeko modu berri batzuk izateko itxura izan zezaketelako sintomak. Eztabaida haien ondorioz, bada, hausnarketa horiek praktikaren eremura eramane beharra sortu zen.

Hala, proposamen hau elkarrizketa sortzaile baten gisara planteatzen da, abiapuntu hartuta Raya Martin filipinar zuzendariak ezarritako adierazpen modu bat edo jarraibideak, garatuz joan zirenak, harik eta elkarlaneko proiektu askoz zabalago bat osatu zen arte, zeina grabatu baitzen lokalizazio oso desberdinetan, hala nola: Jaipur, Delhi, Kyoto, Osaka, Nara, Taipei, New York, Nairobi, Tepoztlán, Mexiko Hiria, Txileko Santiago, Singapur, Abu Dabi, Leon (Frantzia), Paris edo Los Angeles. Film horretan pertsona ugari parte hartu du, barne hartuta Nathalia Acevedo mexikar aktorearen kolaborazio berezia, zeina Carlos Reygadasen *Post Tenebras Lux* filma filmatu zen lokalizazioetara itzultzen baita, film hartako protagonista izan zelarik, eta harrapatzen du bidaia berria, abiapuntu dituen agertoki hori, istorio hori eta haren pertsonaiak.

Filmaren kapitulukako egiturak aukera eman du hainbat erregistroekin eta baliabide mugagabeekin jokatzeko, teknologiarik oinarritzkoena bestelako harrapatze sistema sofistikuagoekin nahasteko, generoak konbinatzeko, eta filmaketan sortzen joan ziren beharren arabera eraikitzen joateko. Hasierako programa horren inguruan antolatua –konfigurazio hain ezarri bezain infinituki ireki baten inguruan, hain zuzen–, narrazioa tolesgabetu egiten da, eta barruan dauka ezin konta ahala narrazio, adarkatzen eta elkar nahasten direnak: bidaia, bilaketa eta ezinezko kartografia kontaezinak.

Jardunaldi hau Artelekurentzat planteatua dago, bai eta ikus-entzunezko ekoizpenetik gertu dauden pertsonentzat ere (aurrez izen emanda). Hasieran, proiektuaren aurkezpena dago, filmeko taldeak egina, baina bertan daudela, baita ere, grabazioan partaide izandako beste pertsona batzuk. Arreta jarriko die bai filmaren prozesu osoari –sorrera, planteamendua, metodologia eta garapena– bai egungo zinema lengoia eta ekoizpena inguratzen dituzten zenbait gai eta arazo elkarrekin aztertzeari, ardatz izango direnak egunean zehar gainerako parte hartzaileekin eta bertaratutakoekin egingo diren eztabaidetan.

Jarraian, beste aurkezpen/lantegi bat egongo da, proiektu honetako beste partaide funtsezko batek egina. Horrek ere hitz egingo du zinema lan berriago batzuetaz, zinemarekin duen harremanaz eta egiteko bere manerez, baita aurreko mahai inguruan egindako galderetarako bere hurbilketa ere.

Jardunaldia amaitzeko, eztabaida ireki bat egongo da ikus-entzuleekin, egunean zehar sortutako gaiei eta –beharbada– eztabaidei heltzen saiatzeko, eta *How to disappear completely* filma proiektatuko da.

## **CsO/BwO/OgG**

### **GORPUTZA ORGANORIK GABE: Sormen prozesurako hurbilketa bat.**

Koordinazioa: **Iván Gómez, Miguel Elizalde, Oier Villar, Jaime de los Ríos, Ebi Soria, Benedetta Orsoli.**

#### **Maiatza-Urria**

*"CsO-a Leku bat da nahitaez, nahitaez Plana, nahitaez Taldea (ezin da hitz egin "nire" gorputzaz organorik gabe, baizik eta niaz beregan, nitaz geratzen dena, aldaezina eta formaz aldatuz, hasierak gaindituz)".*

Proiektu honen helburua da organorik gabeko gorputza miatzea, arte tresna gisa. Horretarako, Deleuze eta Guattari filosofoek beren *Mil Mesetas* obran garatutako kontzeptu horretara hurbilduko gara. Ez gara organoen kontra jarriko, organismo deitzen diogun organoen antolaketaren kontra baizik. CsO-ak bere "benetako organoak" kokatu eta osatu behar ditu ANTOLAKETA ORGANIKOARI AURRE EGITEKO. Ezarritako organoen funtzionaltasuna ukatzea, gorputza deitzen diogun organismoak inplizituki duen hierarkia deseraikitzeke.

Lan prozesuak sei tailer izango ditu 2013ko maiatza eta urria bitartean. Tailerrek Openlab formatua izango dute (tailer bat hilabete bakoitzeko). Erabaki hartzea nahi duenarentzako irekia izango den foroan egingo da, eta egoiliar batek eta konplize batek egingo dituzte dinamizazio lanak. Lan dinamika astebukaera intentsibo batekin hasiko da eta, orduan, egoiliarak eta konplizeak proposamen bat aurkeztuko diote taldeari; proposamen hori hilean zehar gauzatuko da. Proposameneke bi baldintza bete behar dituzte: Prozesuaren ideiarene eta CsO nozioaren arteko dialektikaren inguruan kokatuko dira, eta tailer bakoitzak aurreko proposamena hartuko du abiapuntutzat.

Konklusioa urrian ospatuko da. Prozesuaren emaitzekin erakusketa bat egingo da San Telmo museoan publikoaren parte-hartze irekiarekin. Halaber, sei eztabaida jardunaldi antolatuko dira Artelekun; sei egun elkarrizketa, konferentzia, ekintza eta beste jarduera batzuk garatzeko. Jardunaldi horien helburua da antzeko beste dinamika batzuk, beste lantalde batzuk eta beste zentro kultural batzuk ezagutzea. Azken finean, sareak hedatzea. Artista egoiliar eta konplizeekin batera prozesuan zehar agertutako arazoak berrirakurketa egiteko sei parte hartzaile berri

gonbidatuko dira jardunaldi horietara.

## **MARRAZKIA ETA MODA II. Moda irudikapenak**

Koordinazioa: **Gabriela Muñagorri**

### **Ekaina**

*"Marraskia eta marraztea da sorkuntza prozesua erakustea, eta hori dute ondorio, haren balioa eta indarra erakustea"*. Gabriela Muñagorriren doktore tesiaren proiektutik ateratakoa.

Ikastaroa planteatuta dagoen bezala, bi lan aste izango dira. Lehenengoan, lan prozesuak sortuko dira marrazkiarekin, abiapuntutzat hartuta Gorputzaren eta Objektuaren ideiak eta irudikapenak. Lehen astea garatzeko, artista gonbidatu gisa arituko diren artistek marraskia baliabidetzat hartuta lan egiten dute, eta beren sorkuntza prozesuak aplikatzen dituzte bai euskarri eta baliabide artistikoetan bai diseinuan. Bigarreanean, berriz, gonbidatu bat eta bi moda-diseinatzaile daude gonbidatu gisa. Diseinatzaileek egun bateko *Master Class* bat emango dute, non aurkeztuko dituzten, marrazkiarekin lan egiteko oinarritzat hartzen dituzten sorkuntza prozesuak eta kontzeptuak, eta parte hartzaileekin lehen astean egindako lanak ikusi eta komentatuko dituzte. Parte hartzaileek lantegiko bigarren astea edukiko dute beren lan prozesuekin jarraitzeko.

*"Gorputza askatzea da baieztatzea norberak duen eskubidea bere buruari begiratzeko, bere burua zaintzeko, kontakizun bat bizitzeko, lotsarik gabe zahartzeko, eta dramarik gabeko hiltzeko. Gorputza askatzeko edo gorputzetik askatzeko ataka hori gure bizitzetako erabaki politikorik erradikalena eta saihetsezinena da"*. Santiago Alba Rico, "Decrecimientos".

## **MID\_E'13**

Koordinazioa: **YOX Kolektiboa [Yon Martínez, Xabi Martínez]**

MID\_E arte eta sorkuntza praktika garaikideen erakustaldiaren hamaikagarren edizioko egitaraua da. Ikus-arteak, moda garaikidea eta beste manifestapen kulturalen arteko sorkuntzaren inguruko tailer eta erakusketa jarduerak eskaintzen ditu.

### **EGITARAUA**

MID\_E Studio'013 tailerra. Arteleku. Uztailaren 2tik 5era.

MID\_E Studio'013 tailerra. Arteleku. Urriaren 15etik 18ra.

Aurreko hamar urteko esperientziaren hildoari jarraituz, MID\_E-ko edizio berri honek diziplina-anitzeko sorkuntza sustatu nahi du. Ikus-arte (bideo-sorkuntza eta argazkigintza batez ere), moda garaikidea (oinarri kontzeptualak lantzen dituen) eta beste manifestapen kulturalen (arte eszenikoak, komunikabideak...) arteko interakzioan sakontzen du bereziki.

MID\_E-k antolatutako beste edizio eta egitarauetan bezala, sorkuntza esparru desberdinetan aritzen diren Gipuzkoa, Euskal Herriko zein beste jatorrietako sortzaile berrien arteko elkarlana eta promozioa bultzatzea da MID\_E'013-ko ardatz nagusia.

Helburu hauek bideratzeko, egitaraua hiru fasetan banatzen da, hausnarketa, sorkuntza eta erakusketa aldeak jorratzen dituztenak, sorkuntza praktika hauen inguruan kontzeptualizazio, garapen eta hedapen aldeak landuz.



## **MARRAZ(K)IOAK V**

### **Baztertuak. Album Mutuak Sortzeko Tailerra**

Koordinazioa: **Galtzagorri Elkartea**

Gonbidatuak: **Harkaitz Cano, Ignasi Blanch**

**Irailaren 16tik 19ra**

Garai aldakorrak bizi ditugu. Gaur egun, betiko eskema sozialak, politikoak eta mentalak zaharkituak geratzen dira berehala. Aukera handien garaia da. Baina, aldi berean, testuinguru honetan bazterketa modu berriak sortzen ari dira etengabe. Eta ezin dugu horien aurrean lorik hartu. Erne egon behar dugu. Emakumeen kontrako tratu txarretatik homofobiara; gure nagusienganako errespetu faltatik *bullying* teknologikora; hizkuntz-konfliktoak eta identitateari dagozkionak ahaztu gabe, asko dira elkarbizitza mehatxatzen duten edo zailtzen duten bazterketa arriskuak. Rol eta identitate berriak loratzen doaz, eta arte diziplizina ezberdinek paradigma berri horiei aurre egin behar diete balentriaz. Norbaitek bere burua baztertua sentitzeko arrazoiak asko eta orotarikoak izan daitezke: ezberdinari beldurra, kulturen arteko talka, bakardadea, zahartzaroa, gaixotasuna...

Marraz(i)Oak V. erako aurkezten dugun proiektuaren nahia da, ahal den heinean konflikto puntu hauek aurkitu eta azaleratzen saiatzea, ilustrazioa eta literatura erabiliz. Baztertuen sentsibilizazio lan horretan kolaboratu nahi du beraz Marraz(i)Oak V.ak, album mutuak tarteko.

Tailer intentsibo honetan album mutuak sortzeko teknikak ikasi eta arakatuko dira. Album mutuak ilustrazioekin bakarrik istorio bat kontatzeko gaitasuna duten horiek dira. Bada, oraingo honetan, bazterketa modu berriekin zerikusia duten 8 album mutu sortu nahi dira tailer honetatik abiatuz.

---

## 6. MEDIATEKA

2013ko programarako proposamena bi lan ildotatik abiatuta ulertzen da: Mediatekako **funtsak berak berrabiatzea**, eta **Mediateka Artelekuko programarekin lotzea**.

Bi lan ildo horietan miatuko da ea zer aukera dagoen formatuekin esperimentatzeko, eta bilatuko da zer elkarlotura duten online Mediatekarekin, zeharkako proiektu gisa ulertuta.

Orobat, bilatuko da askotariko lankideen konplizitatea (laborategiak, artistak eta abar), ezagutzak ehuntzen jarraitzeko, gaitasun guztiak baliaraziz eta komunitate bat sendotuz Mediatekaren inguruan.

### 1. Funtsak berrabiatzea:

Funtsak askotariko gaietatik eta subjektibotasunetatik begiratuta berrinterpretatzeak aukera emango du pertsonen, proiektuen eta ekintzen artean loturak egiteko, eta Artelekuk ardatz kontzeptual duen arte sorkuntzaren esparruko gai eta alderdi garrantzitsuak azpimarratzeko.

Gauza da, nolabait, funtsak berak zabaltzea eta dinamizatzea, eduki jakin batzuen berrikuspen eguneratua eginez arte eta kultura garaikidearen munduko hainbat eragileren eskutik; hain zuzen ere, gaur egun, hausnarketarako eta analisirako bideak irekitzen jarraitzen duten edukiena.

### 2. Mediateka Artelekuko programazioarekin eta proiektuekin lotzea:

Mediatekak ezinbestean aritu behar du elkarreraginean zentroak bere ekintza eta proiektu programaren bitartez heldutako lerro eta gaiekin; Artelekuko lan ildoak sendotu behar ditu; beste kanal batzuk eskaini behar ditu, edukiei ikusgaitasuna emateko; eta formatu berriak miatu behar ditu, informazioaren irisgarritasunerako.

Horren haritik, gune bat irekitzen da, online Mediatekaren bitartez, Mediatekako proiektuaren beste luzapen bat bezala funtzionatuko duena, eta ardatz izango dena, nondik gai interesgarriak planteatuko baitira eta ikusgaitasuna emango baitzaie aurrera eramaten diren lan ildoei eta ekintzei.

Lan ildo batzuen artetik, hona hemen azpimarragarrienak:

Artelekuko ekintzen inguruko bibliografia berriazkoa hautatzea, kontsultagai egongo dena, Mediatekan egokitutako gune baten bitartez eta online atalaren bitartez.

Artelekuko hainbat proiektuekin elkarlanean aritzea, elkarren arteko ekintzak burutzeko.

Eduki digitalak sortzea programarekin zerikusia duten hainbat gai interesgarri buruz, era askotako formatuetan, podcast programa baten bitartez, esaterako.

### **3. Artelekuko Artxiboko funtsak berreskuratzea eta haren balioa agerraraztea:**

Aurten jarraituko da 2011ko azaroaren 6ko uholdeetan galdutako funtsak berreskuratzen, eta milaka gauza birjartzen: liburuak, DVDak, CDak, aldizkariak...

Beste alde batetik, jarraituko da Artelekuko artxiboari buruzko materialak hautatzen, identifikatzen eta antolatzen, nola digitalak hala analogikoak. Asmoa da Artxiboari epe luzerako proiektu gisa heltzea eta irisgarri bihurtzea.

\*\*\*

### **Lan ildo horiei dagokienez, hainbat proposamen zehatz aurkezten dira Mediatekako 2013ko Programaren barruan:**

#### ***Mediateka\_Arteleku\_Podcast***

Mediatekak abian jartzen du gune bat, neurrira egindako irrati modukoa, berekin ekarriko dituen esanahi berriak eta beste ikuskera batzuk arte eta kultura garaikidearekin zerikusia duten gaien gainean.

Zeharkako proiektu bat da, diziplinak uztartzen dituen, eta ikusgaitasuna ematen diena Artelekuko edukiei, programei eta proiektuei.

Esperimentatzeko gune bat ere bada, ahots desberdinei irekia, eta etengabe eraikitzen ari dena.

#### ***Gomendioak eta ibilbideak***

Aldizka, hainbat kolaboratzailearen eskutik, Mediatekako funtsak osatzen dituzten askotariko gauzak gomendatuko dira.

Orobat, hainbat ibilbideren bitartez, funtsak *birbisitatuko dira*, arte eta kultura garaikideari lotutako zenbait pertsonaren eskutik: ibilbide pertsonalak, eramango gaituztenak makina bat testu, ideia, gai eta istorio berrirakurtzera edo aurkitzera.

***Elkarlanak. Ekintzak***

Elkarlaneko hainbat ekintza egingo dira Artelekuko zenbait proiektuekin, hala nola pertsonaiak sortzeko lantegia, eta animazio filmen proiektzioa, Artelekuko Mugimenduzko Irudien Laborategiarekin lankidetzan.

***Irakurketa taldeak***

Abian jarriko da irakurketa talde bat, arte eta kultura garaikideko hainbat profesionalak dinamizatua.